

HIZNET graduondoko ikastaroa

2007/2008

EUSKARAREN ALDEKO DISKURTSOA XXI. MENDE HASIERAN

Asier Basurto Arruti

Tutorea:
Nekane Jausoro Santa Cruz

AURKIBIDEA

0.- KOKAPENA.....	2
1.- EUSKARAREN EGOERAK: erabilerarako baldintzak Euskal Herrian.3	
Erabilera (praktika)	4
Ezagutza (gaitasuna) eta Motibazioa (jarrera).....	5
Bestelako baldintzak.....	6
2- XX. MENDEKO EUSKARAREN ALDEKO DISKURTSOA.....	8
Sirenak beti piztuta	8
Euskararen egoeraren zama: zuretzat ala niretzat?	9
Gure altxorra: gurea eta altxorra	10
3- XX.ETIK XXI. MENDERA: aldaketa garaia	12
Mundu mailako harremanen areagotzea	13
Merkatuaren hedapena	15
Indibidualizazio prozesua	17
4- EUSKARAREN IRUDIA ETA DISKURTSO BERRITUA	20
Beharra	20
EUSKARAREN EGOERA	20
EUSKARAREN ETA BERE SUSTAPENAREN HAUTEMATEA	20
EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRIAK	21
DISKURTSOAREN ERAGINKORTASUNA	21
Aukera.....	21
Hiru trantsizio diskurtsoa berritzeko	22
IRAGANETIK ETORKIZUNERA	22
ONDARETIK TRESNARA	26
KONPROMISOTIK GOZAMENERA	28
5- ONDORIOAK	31
6- BIBLIOGRAFIA	33

0.- KOKAPENA

Sakontze egitasmo hau, XXI. mende hasierako euskararen aldeko diskurtsoaren gaineko hausnarketa bat da. Hizkuntz egoerari buruz dauzkagun datuak irakurrita eta euskara sustatzeko erabili izan diren eta gaur egun erabiltzen diren diskurtso ohikoenak aztertuta, nire aburuz XXI. mendeko euskal gizartean eraginkorra izateko euskararen aldeko diskurtsoak bildu beharko lituzkeen ezaugarriak azalduko ditut ondorengo orrialdeetan.

Ezer baino lehen, euskararen aldeko diskurtsoa esaterakoan zertaz ari garen argi uztea komeni dela uste dut. Euskaldunek euskararen etorkizunaren inguruko zalantzarik ez duten egoerara heltzea helburu duen diskurtsoaz ari naiz. Hiztunak, euren eguneroko harremanetan hizkuntza bat ala bestearen aldeko hautuaren aurrean jartzean, euskararekiko sentitzen duten erakarpin indarra erdarekiko erakartzen dituen baina handiagoa izateko baldintzak sortzea bilatzen duen diskurtsoa da euskararen aldeko diskurtsoa. Lan honetan euskararen aldeko diskurtsoa deitutakoa, ez da euskararen existentzia onartzeko prestutasunaren diskurtsoa, euskarak Euskal Herrian menpeko hizkuntza izateari uztera begirako diskurtsoa da.

Anitzak izan dira, euskara sustatzeko gizarte sektore ezberdinetatik azken hamarkadatan zehar erabilitako estrategiak. Alde handiak topa ditzakegu gainera, euskararen egoerari dagokionez, azterketaren esparrua historikoki eta geografikoki aldatzen dugun heinean. Aldi berean, ez dira gutxi Euskal Herrian eta bere gizarte egituran eman diren bestelako aldaketak; XXI. mendeko Europa mendebaldarreko gizarte batean kokatzen gara eta eraginkorra izan nahi badu euskararen diskurtsoa baldintza horiei egokitu beharko zaie.

1.- EUSKARAREN EGOERAK: erabilerarako baldintzak Euskal Herrian.

Sakontze egitasmo hau ez da euskararen egoera soziolinguistikoaren azterketa lan bat. Hala eta guztiz ere, lanaren gaira heltzeko, komenigarria da honen gutxieneko irakurketa bat egitea. Alde batetik, Euskal Herriko biztanleen artean euskararen egoeraren gaineko irakurketa ezberdinak topa litezkeelako. Eta beste alde batetik, euskarari buruzko diskurtsoaren hartzaille izango den biztanleriak hizkuntzari dagokionez dituen ezaugarriak diskurtsoaren beraren eraikuntzan oso kontuan hartzeoak direlako.

Ezertan hasi aurretik, atal honen izenburuan akatsik ez dagoela argitu nahi nuke. Atalak *euskararen egoerak* izena du euskararen egoeran lurraldeen, adin taldeen edo erabilera esparruen artean aurki litezkeen aldeak azpimarratzeko asmoz. Euskararen egoera ez da bat ere homogenea euskal gizartean.

Euskararen egoera ahalik eta modurik zehatzenean ezagutzeko, hainbat adierazle aztertzen dira normalean: biztanleriaren hizkuntza gaitasuna; kalean neurtutako erabilera; hezkuntzako ereduaren matrikulazioa; komunikabideen kontsumoa; hizkuntzarekiko jarrera, jokaera eta gaitasunari buruzko inkestak eta bestelako ikerketak; helduen euskalduntze-alfabetatzearen matrikulazioak;...

Guztiek ematen digute euskararen egoeraren gaineko informazioa. Ekarpene hauen informazioa elkarren osagarritzat erabiliaz, bakoitzaren matizarekin euskararen gizarte egoera zertan den eta zein bilakaera izaten ari den zehaztasunez ezagutzera gerturatu gara. Hala eta guztiz ere, ez nituzke maila berean kokatuko hizkuntza gaitasuna, hizkuntzarekiko jarrerak eta praktika hizkuntza baten egoera zein den ezagutzeari begira. Izan ere, xede horri begira, erabilera beste denen gainetik dagoela esango nuke. Erabilera da hizkuntzak gizarte bizitzan duen presentzia. Gizabanako eta giza taldeen arteko harremanetan hizkuntza bakoitzak duen parte hartzea da. Erabileran eragitea da lan honen aztergai den euskararen aldeko diskurtsoaren xedea, hortaz, gaur egungo erabilera ezagutzea, aldarazi nahi den abiapuntuzko egoera ezagutzea da.

Baieztapen hauekin ez nituzke gutxietsi nahi Txepetx-en ereduko beste bi elementuak, aitzitik, lanaren aztergaia motibazioan esku hartzeari bideratuago dago,

baina euskarak gizartean bizi duen osasun egoera batez ere erabileran islatzen dela azpimarratu nahi dut. Motibazioa eta ezagutzaren azterketak erabilera konprenitzeko ezinbestekoak dira, erabilera dena izateko dauden baldintza nagusiak dira eta, dudarik gabe, uneoro kontuan hartu beharrekoak.

Erabilera (praktika)

Esan bezala, euskararen egoera aztertzerakoan, erabileran eta honen bilakaeran zentratzea hobetsi dut. Euskararen erabilera zertan den azaldu asmoz, Euskal Herrian egiten diren bi ikerketa nagusiek 2006an jasotako datuak kaleratu dituzte 2007 eta 2008an zehar. Euskal Herriko V. Kale erabileraren Neurketaz¹ eta IV. Inkesta Soziolinguistikoaz² ari naiz. Bi ikerketa hauen emaitzei erreparatuta, balorazioak egitea ekidinez eta oinarritzko datuak hartuta, euskararen erabilerari buruz zenbait baieztapen egin daitezke:

- Euskararen erabilera minoritarioa da Euskal Herri mailan, oso minoritarioa lurraldearen zatirik handienean.
- Iparraldean, Araban eta Nafarroan euskararen erabilera ez da %10era heltzen. Bizkaian, muga horren gainetik kokatzen da, gutxigatik. Gipuzkoan euskararen erabileraren proportzioa hirutik baten ingurukoa da, lurralde hau da Euskal Herriko datuaren gainetik kokatzen den bakarra.
- Euskal Herri mailako datuak goranzko bilakaera azaltzen du.
- Hala ere, lurraldeka joerak ezberdinak dira. Ipar Euskal Herrian erabilera gero eta baxuagoa da eta joera mantentzen du datu jasoketa batetik bestera. Araba eta Bizkaian erabileraren datuek gorantz egin dute bi ikerketa hauen lehen edizioetatik hona (1989 eta 1991), baina tarteko datu jasoketek gora beherak azaltzen dituzte. Nafarroan gutxi gora behera erabilera maila mantendu egiten dela esan dezakegu. Gipuzkoa da erabilerarik altuena azaltzen duen herrialdea eta euskara gero eta gehiago erabiltzekoa da joera. Hala ere, hazkundearen erritmoa moteldu egin da.
- Erabilera datuak ezagutzakoen alboan jarrita, biek goranzko joera izan arren, hazkunde erritmoa ezberdina da. Gero eta tarte handiagoa dago euskara erabiltzeko gai den populazioaren proportzioa eta praktikan erabiltzen duenaren

¹ Bat (64. alea), 2007

² Hainbat egile, 2008

proportzioen artean.

- Erabilera eremuka aztertuta ikus liteke Hegoaldean etxeko ohiko erabileraren gainetik seme-alabekiko harremanetakoa nabarmentzen dela. Iparraldean aldiz, seme-alabekin etxean orokorrean baino gutxiago erabiltzen da euskara. Gertuko komunitatean aitortutako erabilera maila etxekoaren inguruan dago lurralde guztietan. Eremu formaletako erabilera beste etxeko eta gertuko komunitatearen eremuetakoaren azpitik kokatzen da (Ipar Euskal Herriaren kasuan nabarmen).

Ezagutza (gaitasuna) eta Motibazioa (jarrera)

Erabilerarako baldintzak deskribatzen dituztenez, azken Inkesta Soziolinguistikoan Euskal Herriko biztanleriak duen hizkuntza gaitasuna eta hizkuntzarekiko jarrera azaltzen duten datu batzuen irakurketa bat egitea komeni da. Euskararen aldeko diskurtsoaren eraginkortasunari begira, euskarari buruz dauden uste, iritzi eta irudikapenetan sartzea beharrezko izango da, baina helburu biztanleriaren oinarritzko ezaugarrien errebaso honetan, jarreraren oinarritzko banaketa kuantitatibo baten argazkian geratuko gara. Hizkuntzarekiko motibazioaren adierazle kuantitatibo modura, hurrengo ikasturtean eskolan hastekoak diren haurren eskoletako ereduaren matrikulazio datuak³ eta Inkesta Soziolinguistikoan⁴ euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerei eskainitako atala erabiliko ditut.

- Euskara ulertu eta hitz egiteko gai direnak (elebidunak) Euskal Herriko populazioaren laurdena dira. Ulertu edo irakurtzeko gaitasuna dutenek (elebidun hartzaileak) %15,4a osatzen dute. Gainontzeko %58,9a ez da euskara ulertzeko gai.
- EAEn elebidunak ez dira populazioaren herena izatera heltzen eta elebakarrak erdia baino gehiago dira. Nafarroan gehiago handia erdal elebakarra da (%81). Iparraldean ere populazioaren bi herenetik gora erdal elebakarrak dira, elebidunak %22 dira eta gainontzekoak (%7) elebidun hartzaileak dira.
- Lehen inkesta soziolinguistikotik honetara (1991-2006) ezagutzaren bilakaera hazkorra izan da Euskal Herri mailan. Elebidunak %22,3tik %25,7ra pasa dira; elebidun hartzaileak %7,7tik %15,4ra; elebakarrak 1991n populazioaren %70

³ erabili.com, 2008

⁴ Hainbat egile, 2008

ziren eta 2006ko datuen arabera %58,9 izatera pasa dira.

- Ezagutza datuen bilakaera lurraldeka aztertuz gero ikus dezakegu 91-06 urte bitartean Hegoaldeko lurraldeetan bilakaera positiboa izan dela, gero eta elebidun gehiago daudela. Iparraldean ordea, ez da hala gertatzen, elebkarrek populazioaren zati gero eta handiagoa osatzen dute.
- Euskal Herriko lurralde guztietan, euskararen erabilera sustatzearen aldekoak aurkakoak baino gehiago dira. Gipuzkoan dute populazioaren proportziorik altuena (%76) eta Nafarroan baxuena (%38). Euskararen erabilera sustatzearen aldekoek, halaber, Nafarroan dute pisu gehien biztanleria osoaren artean (%34) eta Gipuzkoan gutxien (%5,5). Alde edo kontra hautatzen ez dutenek biztanleriaren proportzio esanguratsua osatzen dute orokorrean. Ipar Euskal Herriaren kasuan aldekoen taldearen pare daude (%41).
- Bilakaerari dagokionez, Hegoaldean euskararen erabilera sustatzearen aldeko iritzia dutenak gero eta gehiago diren bitartean, Iparraldean aurkakoaren proportzioa da joera hazkorra azaltzen duena.
- Alde handiak daude lurraldez lurralde haurren hezkuntzarako hizkuntz ereduen banaketan. EAEn ikasleen gehiengo handiak eredu euskaldun edo elebidunetan ikasiko du. Bizkaian eta Gipuzkoan D eredia da hautatuena (%67 eta %85) eta ondoren B eredia dator (%27 eta %12). Araban parez pare daude B eta D ereduak matrikula kopuruak (%49 eta %48). Hiru lurraldeetan A ereduaren presentzia oso murrizta da. Nafarroan, %30 dira euskarazko ereduaren izena eman dutenak. Antzeko datuak daude Iparraldean; eredu elebidunetan matrikulatutakoak %30 inguru dira.
- Lurralde guztietan joera nagusia euskara tartean dute ikastereduen hazkunderanzkoa da.

Bestelako baldintzak

Euskararen aldeko diskurtsoak azken helburu bezala erabileran eragitea du. Diskurtso eraginkor bat zabalduaz, hiztunak motibatu eta erabilerarako baldintzak sortzean inplikatzeko bilatzen du. Baina zeintzuk dira baldintza horiek? Hizkuntz gaitasuna eta hizkuntzekiko jarreraren baitakoak dira neurri batean, eta horregatik aztertu ditugu elementu horiek Euskal Herri mailan kuantitatiboki bizi duten egoera, baina nahikoa al da?

"«Ingurune baldintzen gutxieneko mailarik» dagoenentz aztertzeko, ingurunea ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke, bere arlo nagusiak ondoko hiruretan sarritan banatu ohi direlarik: ezaguera, erabilera eta jarrerak. Baina arestian esandakoaren ildotik, beste bi osagarri hartu behar dira kontuan gure ustez: Strubellengandik jasotako «menpeko hizkuntzarekiko arau sozialaren» ideia, batetik, eta «hizkuntza harreman sareak» edo hizkuntza horren gauzatze soziala, bestetik. Menpeko hizkuntz komunitatearen egoeraren diagnosis osatzeko eta hizkuntza horren ikas/erabiltzearen aldeko motibazioak sortzeko ingurunean behar bezalako egoerarik ematen ote den azter daiteke gune soziolinguistiko ezberdinetatik abiatuta eta, baina, egoera horretako hutsuneak eta beraien zergatiak ere."
(Martinez de Luna, 1996)

Iñaki Martinez de Lunak bere artikuluan aipatzen dituen bi baldintza horiek (menpeko hizkuntzarekiko arau soziala eta hizkuntza harreman sarea) zalantzarik gabe aztertu beharrekoak dira hiztun bat edo talde batengan erabilera emateko aukerak baloratu eta erabilerarako baldintzak sortzeko jomugak finkatzerakoan.

Hasieran, euskararen egoerak anitzak direla esan dut erabilera, ezagutza eta jarrerari buruzko estatistika datu gutxi batzuen argitan. Horiek soilik kontuan hartuta eta ñabarduretan gehiegi sartu gabe, Euskal Herrian hizkuntzaren erabilerarako baldintzen arabera hainbat egoera bereiz litezke. Baina horiez gain gizarteko hizkuntz araua eta hiztunek euren harreman sareetan topatzen duten errealitatearen arabera bereizten baditugu, hizkuntz erabileraren gizarte fenomenoaren konplexutasunaz jabetzen laguntzen digu. Kontuan hartu beharreko guzti hauei dagokionean hiztun bakoitzak duen kokapena Euskal herriko biztanleen artean, euskararen diskurtsoaren hartzaileen artean topa litekeen aniztasuna agerrarazten du.

2- XX. MENDEKO EUSKARAREN ALDEKO DISKURTSOA

Hiztunen motibazioan eraginez euskararen erabilera sustatzea da euskararen aldeko diskurtsoaren helburua. Hizkuntzarekiko motibazio bezala joka dezaketen ideiak asko dira eta elkarren artean alde nabarmenak daude. Hiztun bakoitzaren hizkuntzarekiko bizipenek eta ingurukoek transmitituta barneratutako baloreek determinatzen dute erabilerarako hizkuntza hautatzean bakoitzarekiko sentitzen duen erakarpen indarra. Euskal soziolinguistikan sarri hitz egin da gai honen inguruan, nahiz eta ikerketa aplikatu aldetik hutsune bat badagoela esan litekeen.

Euskararen alde egiteko, bere erabilera haz dadin baldintzak sortzeko, diskurtso ezberdinak igorri izan dira gizarte sektore euskaltzaleetatik. Ñabardurak galtzearen aurrean, euskararen aldeko diskurtso nagusien panorama ulergarri bat ematea hobetsiz, frankismo garaiko euskararen aldeko mugimenduen berpizkundetik gaur egun arte euskararen alde egiteko erabili den diskurtsoaren ezaugarri nagusiez arituko naiz jarraian.

Sirenak beti piztuta

Hartzaileengan euskararen aldeko jarrera sustatzeko erabiltzen den diskurtsoaren erdigunea hizkuntzak duen galtzeko arriskua da. Euskarak, bizi dituen baldintzetan, etorkizuna ez duela ziurtatuta eta hau ziurtatzeko hiztun bakoitzaren ahaleginaren beharrezkotasuna, euskararen aldeko mezu gehienengana oinarrian topa daiteke.

1960 ingurutik 1980 ingurura bitarteko bi hamarkadetan, Euskal gizartean hizkuntz egoeraren larritasunaren kontzientzia azalatu zen. Euskara legalki jazarria eta sozialki gutxietsia zegoen garai hartan, egoera soziolinguistikoan esku hartu ezean euskara desagertzera bidean abiadan zihoanaz jabetu ziren zenbait sektore. Gazte erlijiosoaren arteko sareetan piztutako kontzientzia izan zen⁵. Kontua da, bi hamarkadaren buruan, euskararen egoeraren larritasuna eta herritarrek egoera honekiko zuten erantzukizunaren kontzientzia euskal herritar gehienengana zabaltzea lortu zela. 1960tik 80ra bitartean euskararen etorkizunarekiko kezka apaizgai talde

5 Arruti, 2007

batzuetatik euskal gizartera zabaltzeko egindako bidea, momentuko Euskal Herriaren ezaugarrien bidez ulertzen da: giro politiko bizia, diktaduraren aldetik jazarpena lehenengo eta diktaduraren amaiera gero, euskal nortasuna aldarrikatzeko aukera, nazioarteko herrien askapen mugimenduen erreferentzia,...

"Euskarak behar zaitu" bezalako lemak eta euskara salbatzea bezalako espresioak ohikoak izan dira euskararen aldeko mezuen artean, garai hartatik hona; egoeraren larritasuna azaleratzeaz gain, konpromiso eskaera uztartzen dituzten mezuak dira.

Euskararen egoeraren zama: zuretzat ala niretzat?

Euskararen egoeraren irakurketa egin eta honen aldaketarako zailtasunak aztertzerakoan, bi joera nagusi bereizten dira. Bi joera hauek bereizten dituen, euskararen egoera minorizatua izatearen eta minorizazio horretatik ateratzeko oztopoen zama talde ezberdinen gainean uzten dela da.

"Hizkuntza bat ez da galtzen / ez dakitenek ikasten ez dutelako, / dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"
(Joxean Artze)

Hala zioen Artzeren poemak. Eta gutxi izango dira honen entzutea ez duten euskaldunak. Euskararen egoeraren zama euskaldunen bizkarrera botatzen duen diskurtsoaren adierazgarririk ezagunena da aipatutakoa. Diskurtso honek egunerokotasunean dauzkan harreman guztietan euskara erabili eta erabiltzeko eskubidea aldarrikatzea eskatzen dio hiztunari eta, aldi berean, hala egin ezean euskararen egoeraren larritasunaren errudunik bilatzeko legitimitatea kentzen. Euskararen ezagutza dutenek ez badute erabiltzen, nekez lortuko dutela erdaldunak euskalduntzea da diskurtso honen argudioa.

Aipatutakoaren parean, euskararen egoeraren zama erdaldunengan jartzen duen joera daukagu. Gizartean zabaltzen diren zenbait mezuren arabera, euskararen egoeraren erantzule nagusiak erdaldunak dira, elebidun izateko pausorik ez emanagatik erabileraren hazkundea eragozten dutelako. Hala zioen Xabier Isasik, Euskal Herriko V. Kale Erabileraren Neurketari eskainitako Bat soziolinguistika aldizkariaren alean:

*"Erdaldunek euskalduntzearekiko erakusten duten axolagabekeria euskararen egoera tamalgarriaren faktore nagusia da, ez euskararen erabilera."
(Isasi, 2007)*

Nabarmendutako aipu hau, soziolinguistika arloko aldizkari batean kokatzen da, beraz ez da gizarteari orokorrean, herritar arruntari, igorritako mezu bat. Hala eta guztiz ere, argumentu horiek gizartean presentzia badutela esan liteke.

Gure altxorra: gurea eta altxorra

Euskararen alde zabaltzen diren mezuen zati handi batean transmititzen diren bi ideia dira: euskararen Euskal Herriko berezko hizkuntza izaera eta hizkuntza bezala dauzkan berezitasunak hiztunei ematen digun bereizgarritasuna.

Euskara da euskaldunon hizkuntza. Euskararen iraupena ziurtatzearen alde egiteko, euskal kulturaren erdigunea hizkuntza dela erabiltzen da argumentu bezala. Euskal kulturaren biziraupena, euskararen biziraupenarekin loturik doa, ez baitago euskal kulturarik euskararik gabe. Euskal kultura bere bezala sentitzen duenak euskararen biziraupenaren alde egin behar du. Euskal Herrian dauden hizkuntzen artean, berez bertakoa den bakarra da eta dena delako kausek eraginda arrisku egoerara eramana izan da.

Euskara euskal kulturaren eta nazio identitatearen ikur gorena da eta kultura eta identitate horiek gizartean balioa hartzearekin batera joan da XX. mendearen bigarren erdian euskarak balioa hartzea. Baina, ezinbestean, hauen erdigunean kokaturik, kultura eta nazio nortasuna gatazka iturri diren moduan, euskara ez da gatazka horretatik salbu egon.

Eta guzti horrez gain, hizkuntza zaharra da. Jatorri ezezaguna du, baina milaka urte dauzkala dakigu. European ez da antzeko beste kasurik ezagutzen. Filologiaren ikuspegitik altxor bat dela esan daiteke. Honetan oinarritzen da euskararen aldeko beste argumentu nagusietako bat. Hizkuntzaren ezaugarri berezi horiek, balio erantsia ematen diote. Hizkuntza galtzen utziz gero, gure aurretik izan diren euskaldunek belaunaldiz belaunaldi mendetan zehar transmititutako ondarea galduko genuke.

Euskaldunoi eta euskal herritar orori ekidin ezinezko erantzukizuna ezartzen die argumentazio honek: euren altxorra babestu behar dute, altxor hori jasotzea bera, beste inork izan ez duen pribilejioa izan baita.

3- XX.ETIK XXI. MENDERA: aldaketa garaia

XX. mende amaiera eta XXI.eko hasiera aldaketa garaia izan da. Munduaren norabideaz diharduten aditu askoren azterketak ikusita, azken urteetan epealdi berri bat ireki dela esan dezakegu. Etorkizunean, guk bizi izan dugun momenturen bat garai batetik besterako aldaketaren mugarri bezala finkatu daitekeela aurreikusi daiteke; Gizakia ilargira heltzea, Sobiet Batasunaren desegitea edo Dorre Bikien aurkako erasoak, esaterako.

Izan ere, desberdintasun asko topa ditzakegu Industrializaziotik XXI. mendera irau duen gizarte paradigma eta azken urteetan mundua hartzen ari den norabidearen artean. Desberdinak dira mundu mailako harreman politiko, ekonomiko eta kultural makroak, desberdinak dira taldeen arteko harremanak, norbanako eta taldeen artekoak eta baita norbanakoen artekoak ere. Gizarteetan aldaketa sakonak ematen ari dira eta, ezinbestean, gizarte bizitza ulertzeko modua ere aldatzen doa.

Aldaketa garai honetan sortzen ari den mundu berria azaltzeko balio duten kontzeptuen atzetik dabilta azken hamarkadatan soziologoak. Ez dira gutxi xede horri begira idatzitako liburuak eta sortutako teoriak. Paradigma aldaketa azaltzeko baliabide teoriko hauek, ez datoz guztiz bat elkarrekin, teoria ezberdinak dira. Batzuk modernitatearen barneko beste fase bati ekin berri diogula diote, besteek, aldiz, modernitate osteko garaian murgildu gara. Horrez gain, autore bakoitzak bere kontzeptu propioak ditu, bere hitzak erabiltzen dituzte komunean deskribatzen dituzten fenomenoetarako buruz jardutean. Braudillard-ek *post-modernitatea* deitzen dio garai berri honi; Beck⁶-ek *bigarren modernitatea* edo *arriskuaren gizartea*; Giddens-ek *goi modernitatea* edo *modernitate berantiarra* dela dio; Zigmunt Bauman⁷-ek *modernitate likido* kontzeptua erabiltzen du; Castells-ek *sare gizartea* izena ematen dio eta Alain Touraine⁸, berriz, *industria osteko gizartea* edo *gizarte post-industrial*.

Kontzeptu eta autore hauetako bakoitzak bere teoria du, besteengandik bereizten dena, baina orokorrean guztietan identifikatu daitezkeen joera batzuk badaudela esan liteke. Gainera, lan honetarako interesa duena garai berri honen

6 Beck, 1986

7 Bauman, 1999

8 Touraine, 2006

ezaugarri nagusiak identifikatzea denez, horretan geratuko gara. Zehazki, XXI. mende hasiera honetan gure bizimoduan sumatzen diren aldaketak hiru mailatan bereizita aipatzera sartuko naiz, hirurak errealitate beraren parte diren eta elkar nahasten diren arren: mundu mailako harremanen areagotzea, merkatuaren hedapena eta indibidualizazio prozesua.

Mundu mailako harremanen areagotzea

Globalizazioa, atal honetan aipatzen ari garen garai berri honen ezaugarririk ezagunena da, herritar arruntarengana gehien heldu den kontzeptua da. Gizarte zientzien esparruko adituen artean ez dago globalizazio hitzaren definizio bakarra. Batzuk hitz honekin fenomeno ekonomikoa deskribatzen dute, beste batzuk, fenomeno ekonomiko horri lotuta emandako gizarte aldaketen multzoa. Nik, globalizazioa hitzarekin islatu nahi izan dudana, ez da arlo ekonomikora mugatzen. Globalizazioa kontzeptua mundu mailako harremanen maiztasun eta intentsitatearen areagotzea da, nire erabilpenaren arabera.

Gaur egungo gure bizimoduan, globalizazioaren zantzuak aurrez aurre dauzkagu etengabe. Janzten ditugun zapatilak Italian diseinatu eta Taiwanen jositakoak izan daitezke, auskalo zein jatorriko garraiolariak auskalo zein bidetatik gure herriko dendara ekarriak. Lan egiten dugun enpresako kapitala inbertsiogile amerikar eta alemaniarren esku egon liteke, lantegia Bizkaian kokatu arren. Pelikula bat ikusi edo ez ikusi erabakitzeke, Txileko amona baten iritzia kontsulta dezakegu gure etxetik. Donostian, jatetxe txinatarrera afaltzera joanda tokirik ez badago, bi kale harantzagoko mexikarrean afaldu dezakegu.

Milaka dira mundu mailako komunikazioaren areagotzearen isla bezala erabili litezkeen adibideak; duela urte gutxi imajina ez zitezkeen eta gaur egun naturaltasun harrigarritz bizi ditugun harremanak dira, gizartearen arlo guztietan eragina dutenak: ekonomia, politika, kultura, erlijio...

Gaur egungo gizarteak, hizkuntza gutxitu baten sustapenerako diskurtsoaren hartzaille bezala, dauzkan ezaugarriak dira lan honetan interesatzen zaizkigunak, beraz ez da globalizazioa eragin duten baldintzei buruz jarduteko lekua, izaten ari den ondorioetan sartzekoa, baizik.

Arlo kulturalan mundu mailako harremanen erraztea izaten ari den ondorioez asko idatzi da. Ondorio horiek subjektu indibidualaren ikuspegitik aztertuz gero, norbanakoak bere nortasun kulturalaren eraikuntzarako dauzkan aukera eta oztopoak eta hauetan eman den aldaketa aztertzea benetan interesagarria da; baina aurrerago sartuko gara honetan, indibidualizazio prozesuaren azterketaren baitan.

Fokua urrunago ipinita, globalizazioaren ondorio kulturalari distantzia batetik erreparatzen badiegu, ondorio hauek harreman dialektikoan dauden bi joeraren baitan biltzen direla esan daiteke: kultura globala vs. kultura lokala; joera homogeneizatzailea vs. bereizketarako joera.

Alde batetik, mundu mailako merkatuaren bateratzea daukagu. Ekonomiaren arloan, estatuen arteko mugek gero eta gutxiago eragiten dute saltzaileen eta erosleen arteko harremanetan. Era berean, muga horien lausotzea edo malgutzea produkzio prozesuetan ere eman da. Inbertsioak ere, gero eta gutxiago lotzen dira lurraldeekin. Azken finean, kapitala, lan-eskua, produktuak eta kontsumitzaileak munduan barrena mugitzen dira gero eta gehiago, gero eta errazago. Merkatu globala sortu da: eskaintza eta eskari globalak. Honenbestez, kontsumitzaile bezala baliabide ekonomikoen arabera dago erosi dezakeguna, osterantzean, oso antzekoak dira munduko biztanle guztiek dauzkagun kontsumo aukerak.

Beste alde batetik, teknologia berriek izandako garapena eta herritarren arteko zabalpena dago. Internet da teknologiak azken urteetan izandako garapen eta zabalpenaren adibiderik esanguratsuenak. Nazioarteko harremanak herritar arruntaren esku jarri dituen baliabidea da. Edonoren etxetik mundu guztira zabalik dagoen leihoa ireki du; erabiltzailea munduko bazter askotara eramatea ahalbidetu du eta munduko bazter asko erabiltzailearengana ekarri ditu. Internet, erabiltzaile guztiak elkarrengandik hurbil ipini dituen sarea da, harreman horiek bat batekoak eta merkeak izatea ahalbidetuz.

Bi faktore horiek besteak beste tarteko izanik, mundu mailako harremanen areagotzearen barruan gizakien mugikortasunaren areagotzea ere aipatu beharra dago. Mugikortasun honek, jatorri geografiko eta kultural ezberdineko pertsona eta taldeen arteko aurrez aurreko harremanak ekarri ditu. Bi mailatan eman da mugikortasun horren areagotzea eta bi maila horiek ekonomikoki bereizten dira.

Lehen mundua deitutako biztanleak, iparrekoak, beste merkatuak bezala globalizatu den turismoaren merkatu globaleko kontsumitzaileak bihurtu dira. Gero eta ohikoagoa da oporretarako egun batzuk izanda aisialdi denbora munduaren beste aldean igarotzea hautatzea. Gero eta ohikoagoa da bere bizitzan bi, hiru edo lau kontinente ezberdin zapaldutako jendea topatzea. Zalantzarik gabe kultura ezberdineko jendeen arteko harremanen areagotzea ekarri duen fenomeno da mendebaldarren turismoa.

Baina nazioarteko mugikortasunaren areagotzea hirugarren mundua deitutakoan ere jazo da. Mundu mailako merkatuaren aurrean egoerarik ahulenean aurkitzen diren gizarteetan izandako ondorioek eta komunikabide globalen bidez mundu mailako desoreka ekonomikoa pobreenen artean gero eta agerikoagoa izateak, hainbat eta hainbat migrazio fluxu berri aktibatu ditu.

Homogeneotasun kulturalaren eskemarekin funtzionatu izan duten gizarteetara aniztasuna heltzea ekarri dute aipatutako joera horiek. Lurralde berean jatorri, ohitura, balore eta maila ekonomiko anitzeko jendea biltzen da gaur egun. Aniztasun horren kudeaketa ahalik eta justu eta aberasgarriena izatea izango da gizarte hauen erronka nagusietako bat.

Merkatuaren hedapena

Lehentxeago, mundu mailako harremanen areagotzearen barruan merkatu globalaren osaera aipatu dut. XX. mende amaieran Sobiet Batasunaren desagiteak, aurre egin ziezaiokeen areririk gabe utzi zuen sistema kapitalista. Mundu mailako panoraman kapitalismoari alternatiba izan zitekeen esperientziarik praktikan ez egoteak, lehendik irekitzen ari zen bidetik azken oztopo esanguratsuak kendu zizkion merkatu libreari. Mundu mailako merkatuaren egituraketaz gain, 80ko hamarkadako AEBetako eta Britainia Handiko agintarien politika ekonomikoak eta SESBen erorketak merkatu librearen mugatzea suposatzen duten neurrien legitimazio galtzea ekarri du, ez hainbeste herritarren artean, baina bai arlo honetako erabakien erantzukizuna dutenen artean.

Esan bezala, garai berri honen ezaugarrietako bat merkatuaren hedapen

geografikoa edo nazioarteko merkatuak integratzen dituen merkatuaren sorrera da. Baina ez da hori merkatuak izan duen hedapen mota bakarra. Merkatu librearen mugatzearen legitimazio galerak, gizabanakoen bizitzako arlo guztietarako sarrera eman dio eskaintza eta eskariaren legeari.

Estatu-nazioak merkatuaren aurrean boterea galdu izana eta ongizate estatuaren ereduaren bazterketa ondorio zuzenak izaten ari da herritarren bizitzan. Honenbestez, XX. mendean zehar herritarrak kapitalismoak sortutako ondorio kaltegarrietatik babesteko ezarritako mekanismoak murrizteko dinamikan sartu dira.

Bide hau jarraituz hartutako neurriak eta euren dimentsioa, ez da berdina mundu osoan, baina joera orokortua da orain arte merkantilizatzen ez ziren ondasun eta zerbitzuekin salerosketan aritzea.

Alde batetik, aipatu bezala, ongizate estatuak estaltzen zituen zerbitzu publikoak sartu dira merkatuaren joko arauetan. Osasun zerbitzuak liberalizatzen dira, hauek ematen duten babesa eta hauen kalitatea hartzailearen baliabide ekonomikoen arabera bihurtuz. Unibertsitate publikoak eta pribatuak elkarrekin lehiatzen dira, bereizketa honek ikasleentzat irizpide ekonomikoen arabera diskriminazioa dakar bere horretan; baina horretaz gain, ikasketa unibertsitarioetako edukiak merkatuaren beharretara egokitzeko neurriak martxan jartzen dira, botere ekonomikoaren jabeen gizartearen ezagutzaren transmisioaren kudeaketan leku pribilegiatua emanez. Bi hauek aipatuta, berdin aipa genitzake banketxeak eta aseguru etxeak erretiratutako langileen irabazien kudeaketan hartzen ari diren papera edo energia, komunikazio, garraio eta segurtasunaren arloan ematen ari diren liberalizazioak.

Baina beste alde batetik, merkatuak gizartean izan duen hedapen hori, gizabanakoen bizitzan barrena eman da; merkatua pertsonen alde pribatuenetara hedatzen ari da. Inoiz baino nabariagoa da jasotzen dugun publizitatea nola sartzeko den esparru pribatua. Edozein txokotan jasotzen ditugu merkatuaren eskaintzaren berri ematen diguten inputak. Horretaz aparte, pertsonak elkarrekin harremanean jartzeko zerbitzua betetzen duten enpresak daude; gero eta ohikoagoa da norberaren sentimenduen kudeaketan aholkularitza eta laguntza jasotzeagatik ordaintzea (izan familia giroan, lanean, bikotean..); eta abar.

Indibidualizazio prozesua

Modernitate osteko gizartearen ezaugarri nagusietan beste bat, indibidualizazio prozesua deitutakoa da. Honen ezaugarri nagusia norbanakoen eta modernitatean gizartea egituratzeko balio izan duten instituzioen arteko loturen ahultzea izan da. Instituzio hauetan esanguratsuenak familia nuklearra, nazio-estatua eta lana zirela esan liteke. Errealitate horien ahultzea mundu mailako harremanen areagotzea eta merkatuaren hedapenarekin loturik daude, besteak beste, eta gizabanakoak euren bizitza eta gizartearen funtzionamendua ulertu eta uztartzeko baliabiderik gabe utzi ditu.

Modernitatean paradigman, gizarteko instituzio nagusiekin zuen harremanaren arabera eraikitzen zuen norbanakoak bere biografia. Horietan oinarritzen zuen bere identitate pertsonala. Pertsonak bizi-ibilbidean hartu beharreko erabakiak bere familiako kide bezala, bere lanbideko langile bezala eta bere nazioko kide bezala hartu behar zituenaren arabera hartzen zituen. Era berean, etorkizunerako bere espektatibak familia, lanbide eta lurralde/kultura baten inguruan eraikitzen zituen. Gaur egun hori ezinezkoa da. Hiru gizarte erakunde horiek indarra galdu dute eta formaz aldatu dira.

Familia nuklearraren ereduak ezinbesteko izateari utzi dio. Dibortzioak, bikote homosexualak, bigarren ezkontzak, guraso bakarreko familiak eta familia ereduaren beste aldaerak gero eta ohikoagoak dira, lehen familia nuklearra besterik topa ez zitekeen gure gizartean.

Lan munduari dagokionez, beste hainbeste gertatu da. Modernitatearen eskeman oinarritzko ikasketen ostean, aukeratutako lanerako prestatzen zen norbanakoa. Prestakuntza hau eta gero lanean hasten zen eta erretiroa hartu arte lanbide berean aritzen zen, askotan enpresaz edo lanpostuz aldatu gabe (aldatzekotan gutxitan). Gaur egun, ordea, lanaren eredu guztiz aldatu da. ez dago garai bateko egonkortasunik. Bizitza laboralaren hasiera eta bukaera epeak malgutu egin dira. Eta formakuntza etengabekoa izatearen beharrezkotasuna sektore guztietara zabaldu da.

Nazio-estatua ere modernitatean funtsezko papera betetzetik ahuldutako instituzio izatera pasa da. Nazio-estatua kulturalki homogenea zen biztanleria babesten zuen erakundea zen modernitatearen eskeman. Ongizate estatuaren desegituraketak ekarri du ahultzea, alde batetik. Eta bestetik, gizarte modernoetan hain

presente ez zegoen aniztasunaren azaleratzea dago.

Modernitateko erakundeen ahultze eta eraldatze hori dago gaur egun bizi dugunari eman zaizkion izenen atzean; erakunde horien sendotasun galtzea adierazten du Baumanen *modernitate likidoa* kontzeptuak, Beck-en *arriskuaren gizarteak* erabakiak hartzerakoan norbanakoak bere taldeen irizpideak jarraitzeak ematen zioten babesa galdu duela erakutsi nahi du.

Izan ere, gizabanakoa gizarte industrialaren forma sozialetatik askatzea ematen ari da indibidualizazio prozesuaren bidez. Hain zuzen ere askatze hori, askatasunaren ideia hori, funtsezkoa da indibidualizazio prozesua azaltzerakoan. Gizarte erakundeen eraginetik kanpo sentitzeak patu pertsonalaren ideia sortzen du norbanakoan. Hortaz, gizarte desberdintasunak (sozialki baldintzatuta daudenak eta modernitatean hala ulertzen zirenak) pertsonalak, egunerokotasunekoak, legitimazio gabeak eta pribatuak bilakatu diren heinean, politikoak direla esan daiteke: norberak hartutako erabakien ondorio bezala barneratzen dira.

Gizabanakoak lotura tradizionalak (lurraldearekiko, lagun taldearekiko,...) eta babespen-harremanak (famiarekiko, lanpostuarekiko,...) moztu egin ditu neurri batean, baina hori askatasunarekin parekatzea ez da zuzena. Modernitatean paper sekundarioa zuten instituzioek garrantzia hartzen dute eta lehengoek utzitako lekua betetzen dute; gizabanakoa masa komunikazioaren eta kontsumoaren tresnek sortutako dinamikaren menpe geratzen da, merkaturen nondik-norako eta moden arabera mugituz. Modernitateko erakundeetatik jasotzen ziren mezuek norberaren bizitza baldintzatzen zuten bezala, gizabanakoaren erabakiak baldintzatuta daude gaur egun ere, kasu honetan merkatuarengandik jasotzen dituen mezuen bidez.

Garai batean pertsonak bere identitatea modernitateko instituzioetan zuen parte hartzearen arabera eraikitzen zuen. Gaur egun, masa komunikazioa eta kontsumoaren arabera eraikitzen dira identitate sozialak.

Masa komunikazioa eta kontsumoa mundu mailan egituratzen den merkatuaren baitan daudenez, gizabanakoa mundu-mailan estandarizatuta dagoen komunikabide sarearen barne aurkitzen da, existentzia sozio-espazial bikoitza aurrera eramaten duelarik. Beste era batera esanda, hemen gaude eta aldi berean edozein lekutan; bakarrik gaude baina era berean denok telebista irudi berberaren ikusleak gara.

Taldearen kontzeptuak indarra galdu badu ere, gizabanakoen batuketaren pertzepzioa erabiltzen da. Kontsumoan egikaritutako zaletasunak eta gustuak izaera kolektiboen sortzaile bihurtu dira, neurri batean. Gizabanakoa berak kontsumitzen duena kontsumitzen dutenekin identifikatzen da, hauek adin desberdinekoak izan arren, munduaren beste aldean kokatuta egon arren, mundu ikuskera ezberdina izan arren...

4- EUSKARAREN IRUDIA ETA DISKURTSO BERRITUA

Beharra

Euskararen aldeko mugimendua XX. mendeko 60ko hamarkadan hasi zen berrindartzen. Prozesu progresibo baten bidez, gizartearen zati handi bat erakartzen asmatu zuen, euskararen kausa garai hartan indarrean zeuden baloreekin erlazionatuz: nazio nortasuna, auzolana, bereizgarritasuna,...

Erakarpen horren ondorioz, euskararen normalkuntzaren aldeko apustuak martxan jarri dira orduetik aurrera euskal gizartean: euskarazko hezkuntza, euskalduntze-alfabetatze sarea, hizkuntza plangintza (administrazioan, lan munduan, hezkuntza sisteman,...),...

Orduan hasitako bideak, gaur eguneraino ekarri gaitu:

EUSKARAREN EGOERA

Euskararen egoera lehenago, gaineratik, deskribatutakoa da. Alde haundiak daude lurralde administratibo batetik bestera, herri batetik bestera, erabilera eremu batetik bestera. Hizkuntzaren desagerpena eta hizkuntza normalkuntzaren arteko eskalan maila ezberdinetan kokatzen dira gaur egun euskal herritarrak. Asko da lortu dena, esparru batzuetan besteetan baino gehiago. Baina asko da, halaber, lortzeke dagoena gaur egungo kokapen horietatik aurrera.

EUSKARAREN ETA BERE SUSTAPENAREN HAUTEMATEA

Ibilitako bide horrek, irudi bat sortu du, gainera euskal gizartean. Euskararen aldeko diskurtsoak, euskarari buruzko beste diskurtsoekin batera, euskara balore eta kontzeptu batzuekin lotu ditu. Eta aldi berean, hizkuntza beraz aparte, euskararen sustapen ekimenen pertzepzio bat ere sortu du gizartean.

EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRIAK

XX. mende erdialdetik gaurdaino, euskararen aldeko mugimenduaren berrindartzearekin batera, euskal gizarteak beste aldaketa asko bizi izan ditu. Hauek, ezinbestean, euskararen egoeraren bilakaerari eragin diote. Aldaketa horien zurrunbiloan, modernitatearen aroaren amaiera eta aro berrirako iragaitea etorri da. Izan ere, gaur egungo Euskal Herriko gizarteari erreparatuz, XXI. mendeko gizarte mendebaldarra izanik, joera aurreko atalean deskribatutako gizarte postmodernoen ezaugarrietara hurbiltzekoa dela ikus dezakegu. Modernitateko gizarte instituzioetan oinarritutako kategorizazioak zaharkituak geratzen ari zaizkigu, gure ingurunea ulertzeko ere.

DISKURTSOAREN ERAGINKORTASUNA

Euskararen aldeko mugimendua berrindartzetik gaur egunera euskararen alde erabili izan den diskurtsoan eman izan diren moldaketak xumeak izan dira. Funtsean gizarteari transmititu zaikion mezuak bigarren atalean aipatutakoei lotuta joan dira. Gaur egungo testuinguruan, ordea, diskurtso horren eraginkortasunaren inguruko zalantzak agertzen hasi dira euskararen sustapenaren kausa bere egiten duen jende batzuen artean. Zalantza horiek euskararen inguruko ekimen batzuen krisiak, euskararen sustapen lanari egiten zaizkion kritikek, euskararekiko atxikimendua eta ezagutzaz gainezka dauden hiztunak erabilerara erakartzeko zailtasunek edo dena delakoak sortuak izan daitezke. Kontua da, euskararen aldeko diskurtsoa gaur egungo gizartean eraginkorra izan dadin egokitzeko beharra azken aldian artikulu, hitzaldi eta liburu bat baino gehiagotan agertu dela.

Aukera

Euskararen aldeko diskurtsoaren berritzea burutzeko baldintza egokiak dira, gaur egungoak, nire aburuz. Azken mende erdian egindako bide horretan boluntarismo hutsetik abiatu zen. Euskararen sustapen lana lan militantea zen; iritzi eta sentimenduetan oinarritua eta ekimenean gauzatua⁹. Eta lan militante horrek bere fruituak eman ditu.

9 Arruti, 2007

Gaur egun, euskararen sustapenean profesionalki diharduten langileak daude, elkartetan bildutako boluntarioekin eta euskaltzaleen multzoarekin batera. Horrez gain, euskal soziolinguistika ezagutzaren ikerketa, zabalpena eta aplikazioan dabilen aditu multzoa dugu, horren frogatzat HIZNET graduondoko ikastaro honen irakasleak. Jende multzo hau kontaktuan jarri eta elkarlanean aritzeko aukerak ere asko hazi direla esan liteke, bai antolaketa egitura aldetik, baita komunikaziorakorako bideen hedapenari dagokionez ere.

Urteetan zehar, hausnarketarako baliabideak lantzen eta garatzen joan dira eta gaur ere euskara sustatzeko estrategiak definitzerakoan oinarri bezala erabil litezkeen teoria eta esperientzien gaineko ezagutza etengabe hazten ari da.

Hiru trantsizio diskurtsoa berritzeko

Lehen esan bezala, zenbait adituren aldetik euskararen aldeko diskurtsoa berritzeko beharra sumatu eta gizarteratu da azken urteetan. Gainera, berritze hori euskararen aldeko mugimenduetatik eta euskara sustatzeko betebeharra duten erakundeen aldetik estrategietan aplikatzen hasia da, neurri batean.

Ondorengoak, euskararen alde erabilitako diskurtsoa berritzeko gizarte postmodernoren testuinguruan bizi diren hiztunak erreferentzia hartuta osatutako proposamenak dira, neurri batean gaiaren inguruan aurrez egindako hausnarketetatik jasotakoa bertan txertaturik dagoelarik. Proposamen hauek ez daude diskurtso integral batean integratuta, euskararen alde nire ustetan erabili beharko liratekeen argumentuetan egituratuta. Izan ere, Euskal Herrian euskararen aldeko diskurtsoen igorle eta hartzaileen artean dagoen aniztasunak denentzat baliagarri litzatekeen diskurtso bakarra osatzea ezinezko bihurtzen du. Hurrengo lerroetan jasotako hauek kasuan kasuko errealitatera egokitu ahal izateko beharrezko malgutasunez planteatutako zeharlerroak dira.

IRAGANETIK ETORKIZUNERA

Euskararen aldeko diskurtsoan, etengabea izan da iraganarekiko loturei

apelazioa. XX. mendeko azken bi hamarkadetara arte, euskararekin eta bere kausarekin bat egitea, ezinbestean berekin batera zihoazen beste hainbat konturekin bat egitearen sinonimo bezala ikusten zen, orokorrean: euskal ohiturak, euskal dantzak, herri kirolak, abertzaletasuna, mendizaletasuna,... Hamarkadetan zehar mantendutako lotura hauek, XIX. mendetik edo lehenagotik zetorren euskararen irudi tradizionala elikatuz jarraitu dute eta gaur egun euskal herritarren artean dagoen euskararekiko gizarte pertzepzioa erabat baldintzatu.

Gizarteak euskaraz duen pertzepzio edo hautematearen adierazgarri bezala, gaztetxoekin egindako ikerketa baten emaitzei erreparatuko diegu¹⁰. Ez da euskal gizartearen lagin adierazgarri bat, baina euskara-tradizioa loturaren eraginetik beste sektoreak baino urrunago egon zitezkeela pentsa genezake eta horrez gain, hautemate subjektiboak helduek baino modu naturalagoan adierazten dituztela suposa dezakegu, hautemate hauen gainean egingo den irakurketaren aurreiritzirik gabe.

"Aurkeztutako jardun komunikatibo ezberdinak gaztetxoek euskararekin zein neurritan erlazionatzen dituzten kontuan hartuz, lau jarduera multzo bereiztu ditugu. Lehena, baserri batek irudikatzen duena, Euskal Herriko nerabeen erdiak baino gehiagok euskararekin lotzen du. Bigarren kategoria, familia harremanak eta hezkuntza egoerak irudikatzen dituena, gaztetxoek heren batek ikusten du euskarari lotua. Hirugarren kategoria litzateke jendaurreko jarduerekin lotura duena, eta berau gaztetxoek laurden batek inguru sumatzen du euskarari lotua. Azkenik, lan munduarekin eta modernitatearekin zerikusia duten jardueri edo egoerei bost gaztetxotik bakar batek dio euskara dela jarduera horiekin harreman gehien duen hizkuntza.

Aurkeztutakoaren arabera, baserriaren mundutik modernitatearen eta egungo lan-erretara doan bidean,(...) euskara protagonismoa galduz doala da gaztetxoek duten irudia."

(Martinez de Luna eta Berrio-Otxoa, 1999)

Euskara euskal kulturaren erdiguneko elementua da eta euskal herritarren iritzia hori dela berresten dute gaiaren inguruan Eusko Ikaskuntzak egindako ikerketaren datuek¹¹. Baina euskal herritarrentzat euskal kulturaren elementu garrantzitsuenak, euskararen ostean, dantza, pilota, herri kirola eta ohiturak direla ikus dezakegu datuetan. Esangura handiko emaitzak dira, izan ere, euskal kultura euskal

10 Martinez de Luna eta Berrio-Otxoa, 1999

11 Baxok, Etxegoin eta beste, 2006

kultura tradizionalarekin identifikatzen dela dirudi.

Hau ikusita, euskararen sustapenean eraginkortasuna xedetzat harturik, euskararen aldeko diskurtsoan bidelagun dantza eta kirol tradizionalak eta ohiturak bezalako elementuak izatea komenigarria ote den zalantzan jartzera ausartzen naiz. Ondare kultural tradizionalaren berreskurapen eta eguneratzea gizartean indarrean zegoen joera bat zen garaietan, eraginkortasunaren ikuspegitik komenigarria zen euskara euskal kultura tradizionalarekin lotzen zuen diskurtsoa erabiltzea. Gaur egun, ordea, hizkuntza minoritario bat jarduera minoritario batzuekin lotzea litzateke.

Diskurtsoarena baino, euskararen sustapenean helburu bezala finkatzen dugunarekin erlazonaturik dago kontu hau, eta ez nuke honetan gehiegi sartu nahi, baina euskal gizartearen gaur egungo ezaugarriak eta joerak ikusita auresan dezakegunaren arabera euskarari dantza, herri-kirol eta zenbait ohiturek izango ez duten hedapena emateaz hitz egiten ari gara. Euskararen aldeko diskurtsoan tradizioarekin lotzen diren ideiak txertatzeari uko egiteak, ez du esan nahi euskal kultura tradizionalari uko egitea, tradizio horiekiko atxikimendu estua sentitzen duen biztanleriaren mugak gainditzeko ahalegina da. Azken finean, euskara, euskal kulturaren erdigunean kokatzen denez, beti egongo da euskal kulturako gainontzeko elementuekin harremanean, baina sustapen lanetan ezaugarri honen gainetik beste batzuk azpimarratzeak eraginkortasunean irabaztea suposatuko lukeela esango nuke.

Euskara iragana eta tradizioa bezalako baloreekin lotuz baino, gaur egun etorkizuna eta postmodernitatearen inguruko baloreekin lotzeak eraginkortasunera gehiago hurbiltzen gaituela esango nuke. Euskara eta iraganaren arteko lotura azpimarratzen badugu, euskararen alde egitean gizarteari atzera bueltatzeko eskatzen ari garenaren sentsazioa zabaltzen dugu. Gizartean mundu mailako kapitalismoaren baloreak indarrean dauden honetan, garapenarena da horien artean garrantzi gehien duenetako bat; etengabe, baldintzei erreparatu gabe eta ahalik eta azkarren aurrera egin beharrena. Bizimoduan, hizkuntzari dagokionez soilik bada ere, atzera bueltatzearen konnotazioa duten mezu horiek, ez dira erakargarriak gizarte sektore gehientzat.

Honen orde, euskara etorkizunarekin lotzen duten mezuak zabaltzen baditugu, hiztun potentzialengana heltzeko aukerak hazi egiten direla esango nuke. Hartzaileek bizitza euskaraz egitea Euskal Herriko antzinako egoerara bueltatzea baino, gaur

egungo egoera aldatzea bezala irudikatzea litzateke helburua. Gune erdaldunenetan euskaraz ikastea edo gune euskaldunenetan erabiltzen ez den leku eta egoeratan euskara erabiltzea, esaterako, joera berritzaile bezala ikusi behar dira, aldaketarako joera bezala.

Gaur egungo bizimoduan indartu den balore bat, etorkizunari aurreratu nahiarena da. Komunikazio bideen garapenak eta mundu mailako merkatu estrategiek, etengabe azken olatuaren txanpan egon nahi duten norbanakoak (kontsumitzaileak) produzitzen dituzte. Bereziki deigarria da balore honen araberako jokabidea teknologiaren merkatuan, baina bestelakoetan ere nabari daitekeen joera da. Produktu berriak aurkeztetik hedatzera igarotzen den denbora tartea oso laburra izaten da.

Modernitate osteko gizartean, norbanakoak bere gizarte identitatea bere kontsumo joeren gainean, besteak beste, eraikitzen duela esan dugu. Euskaraz aritzeak, orain arteko hizkuntz ohiturak zaharkituak uzten dituen tendentzia berria bezala saldu behar zaie hiztun/kontsumitzaileei. Etorkizunean bizitza euskaraz egitea gizartean orokortzea ekidin ezinezko patu bezala aurkeztu behar da, beraz lehenbailehen euskaraz biziz etorkizuneko joerei aurreratzen ariko ginateke.

“Hemendik lasterrera denek euskaraz egingo dute” esatea, *“orain gutxi arte denek euskaraz egiten zuten”* esatea baino erakargarriagoa da.

Etorkizunaren euskalduntasuna aurreratzeko erabil daitezkeen datuak badauzkagu. Euskararen egoera eta honen bilakaera aztertuta euskararen normalkuntza ezagutuko lukeen etorkizuna urrun dagoela ondoriozta daiteke¹². Baina aldi berean Euskal Herri mailan datu gehien bilakaera positiboa da. Gero eta jende gehiagok erabiltzen du euskara, gero eta jende gehiago da euskaraz mintzatzeko gai, gero eta jende gehiago dago euskara sustatzearen alde, gero eta jende gehiagok hautatzen du bere seme alabentzat euskarazko hezkuntza, euskaldunen eta euskara erabiltzen duen biztanleriaren soslai gero eta gazteagoa da,...

Esan bezala bilakaeraren norabidea positiboa da (Iparraldea salbuespen), erritmoa da aldatu beharrekoa. Horretarako etorkizun euskalduna heltzear dagoenaren mezua da zabaltzea beharrekoa. Euskararen aldeko diskurtsoaren bidez etorkizun

12 Ferreras, 2008

hurbilean pertsonen bizitzako eginkizun guztietan euskaraz egitea orokortu egingo dela eta hau ekidin ezina dela sinesteak, ekidin ezina bihurtuko du eta erritmoa bizkortzea eragingo du, era berean. Bada soziologian aski ezaguna den teorema bat, ezagunena Mertonek¹³ egindako formulazioa bada ere jatorriz Thomasen teorema da eta honela dio: gizabanakoek egoerak erreal bezala definitzen badituzte, errealak dira bere ondorioetan.

ONDARETIK TRESNARA

Euskararen aldeko diskurtsoaz jardutean euskara gure arbasoengandik jasotako altxorra bezala irudikatzen dela esan dut lehenago. Euskara eta tradizioa/iraganarekiko loturaz jardun dut aurreko puntuan, hortaz, ez naiz sartuko arbasoengandik jaso izatearen horretan.

Euskarak filologikoki eta historikoki duen balioak beste hizkuntzetako hitzunez ez duten zerbaiten jabe garenaren sentimendua sortzen du euskaldunongan. Hizkuntza komunitatea gizarte gutxiespen eta neurri batean auto-gorroto egoeran murgilduta dagoen testuinguruan, norberarenak besteek ez dituzten ezaugarriak izatea hau estimatzeari begira lagungarri gerta daitekeela esango nuke. Hala izan da behintzat orain arte. Euskarak Euskal Herriaren eta gizadiaren kulturentzat suposatzen duen aberastasunak bera babestera hurbildu du hainbat jende eta beste hizkuntzen pare zor zaion lekua aitortzeko balio izan du, besteak beste.

Gizarte mailan ondare (altxor) izaera horren aitortza, jasandako jazarpenaren aitortzarekin batera joan izan den fenomeno dela esango nuke, kronologikoki begiratuta gutxienez. Eta bi aitortza hauek euskara babestearen legitimazioaren atzean dauden faktore nagusien artean kokatuko nituzke. Gaur egun, euskal gizarteko iritzi publikoan ez da politikoki zuzenaren barruan sartzen euskararen bazterketaren edo desagerpenaren aldeko diskurtsorik, hain zuzen ere, euskal herritar eta munduko hiritar guztiok aberasten gaituen ondarea bezala ikusia dagoelako. Horren froga dugu euskararen aurkako eraso bezala sumatzen direnek euskal herritarrengan sortzen duten erreakzioen neurria beste gai gutxik sortzen dutela. Adibide gisa Egunkariaren itxiera edo Wall Street Journalean euskarari buruz publikatutako artikuluaren¹⁴ aurkako

13 Merton, 1964

14 Johnson, 2006

erantzunak. Gera bedi ezer baino lehen argi, beraz, euskara altxor bezala gizarteratzearen diskurtsoaren bidez eskuratutako emaitzez jabetzen naizela.

Baina kontu honek badu beste alde bat. Euskararen balio filologiko eta ethnohistoriko erantsiak eta honen inguruan lortutako gizarte adostasunak (legitimitatea) neurri batean hizkuntza sakralizatzerara ekarri gaitu. Sakralizazio hori bi mailatan eman da, gainera: alde batetik, hizkuntza babestea ulertzeko moduan eta bestetik, hizkuntzaren corpusaren inguruan.

Ondare bezala ulertzen ditugun gauza gehienak babestu egiten ditugu, baina besteengandik urrunduta. Altxor baten jabe bagina, inork ikutu ezingo lukeen lekuan ezkutatuko genuke, ez genuke inolaz ere gurekin eramango eguneroko zereginetan. Euskararen sustapenean bere altxor (ondare) izaera hori azpimarratzeak antzeko ondorioak izan dituela esango nuke. Euskara babestearen alde lortutako gizarte adostasuna ez da euskararen erabilera sustatzeko proposatzen diren neurriek lortzen dutenaren parekoa eta gutxiago, oraindik, euskararen erabileraren parekoa. Zera da adierazi nahi dudana karikarizatuta: badagoela euskal gizartean euskararen aurkako hitz bat onartzen ez duen, baina euskararen erabilerarantz (edo ezagutarantz) behatz bat mugitzen ez duen jendea. Euskara babestu beharreko ondarea dela barneratzeak ez dakar, hartzaile batzuentzat, praktika linguistikoetan aldaketa beharrik. Euskararen aldeko ekimenei atxikimendua adierazi eta zuzeneko erasoen aurrean erreakzionatzeak euskara, ondare bezala babesten aritzea bermatzen du.

Baina, aipatutako horrez gain, hizkuntzaren corpusaren inguruan ere eman da sakralizazioa. Kontua da, euskara zuzena, garbia, erabili nahi izatea euskaldunok gure buruari eta elkarri exijitzen diogula. Fenomeno honen atzean, euskara ondare bezala ulertzeaz gain, bestelako baldintzapenak ere tarteko direla esan beharra dago, hala nola, estandarraren sorrera prozesua (euskalkien deslegitimazioa, arauen ezartze prozesua,...) eta hizkuntza transmisioak izandako ahultasun garaiaren ondorioak (etxeke hizkera jaso ez zuten belaunaldien eta aurrekoen arteko etenak).

Euskararen aldeko diskurtsoan euskara altxor bezala aurkeztearen ondorioak ikusita eta diskurtsoaren eraginkortasunaren prismatic begiratzera bueltatuz, gaur egun bestelako formulazio bat egitearen beharra ikusten da. Mundu mailako planotik begiratzen duen subjektu indibidualaren ikuspegitik, izan dezake bere erakargarritasuna ondarearen diskurtsoak; batez ere hizkuntz ekologiaren paradigmatic

planteatzen bada. Baina aurrez ondarearen mezuak izandako ondorioak erreproduzitzearekin kontatu beharko litzatekeela uste dut,

Milaka urtetan iraun duen hizkuntza aurreindoeuroparraren oinordekoen kolektiboarekiko kidetza eta honek emaniko motibazio sinbolikoa azpimarratzea, ez da nire ustez beste parametro batzuetan funtzionatzen hasi den gizarteko kideengana heltzeko biderik egokiena. Eraginkorragoa litzateke, esaterako, euskara ezagutu eta erabiltzeak ekarriko lizkiokeen abantailez hitz egitea, motibazio praktikoaren bidetik saiatzea.

Euskara tresna bat bezala aurkeztu beharra dago, altxor bat baino gehiago. Altxor askoren kutxa irekitzen duen giltza dela esan dezakegu, azken finean giltza bat gainean eraman dezakegu, edonon eta edonoiz.

Euskarari tresna zentzua ematearekin loturik dago, esaterako, euskararen balio ekonomikoa azpimarratzea. Euskara erabiltzeak ekonomikoki ekar ditzakeen onurak kontuan hartzen dituzten mezuek, ezinbestean erakarriko dituzte merkatuaren aginduetara mugitzen diren saltzaileak. Horretarako, euskarari balio erantsia aitortzen diotenen masa kritikoa identifikatu behar da bezero potentzialen artean, euskaren erabilerarekiko pausoek langileen asebetzean eragin dezaketean aztertu behar da,...

Balio ekonomikoarena, euskararen giltzak irekitzen duen ate bat da. Euskara sustatzeari begira, baina, oso bestelako mezuak ere zabal litezke. Beti ere euskara erabiliaz zerbait lortzen denaren diskurtsoa transmitituz, euskara ikasi eta erabiltzearen praktikotasuna azpimarratzeko erabil litezkeen argudioak erabiliaz.

KONPROMISOTIK GOZAMENERA

Euskararen alde egiteko erabili izan den diskurtsoaren beste ezaugarrietako bat, konpromiso eskaera zabaltzea izan da. Boluntarismoan oinarritutako mugimenduaren aldetik, boluntarismo horretara ahalik eta jende gehien biltzeko ahalegina da euskararekiko konprometitzera deia. Ulergarria, neurri batean, baina hartzailearen tokian jarrita, erakargarritasunaren aldetik hobe litekeena.

Euskararen aldeko hautua egiteak, honek berekin dakartzan "zamak" nork bere

gain hartzea dakar, konpromisoaren mezuan. Euskararen egoeraren gabeziak eta hiztunen konpromisoaren beharra azpimarratzea dena bat da diskurtso honetan. Hiztun bakoitzak eta bere jokaerak hizkuntzaren biziraupenerako duen garrantzia nabarmentzen dira. Hizkuntzaren egoerari buruzko kezka azaldu eta kezka hori bere egitea eskaintzen zaio hartzaileari mezu hauen bidez: zatoz euskarara eta sufri ezazu gurekin bere egoera.

Euskararen aldeko diskurtsoko konpromiso eskaera hauek, izango zuten bere arrakasta neurria, dudarik ez, baina zentzuzkoa dirudi eskaintzak atzeraka eragin zionik ere izango zela pentsatzeak. Hizkuntzaren esperientzia norberak bere erabakiz hizkuntzaren biziraupenari egiten dion ekarpena bezala bizitzea, zama bat izan baitaiteke, berekin transmititzen dituen erantzukizun eta neke konnotazioen ondorioz.

Gaur egun bizi ditugun garaiak, gainera, ez dira gizarte arazoekiko konpromisoaren garai onenak. Bere gizarte identitatea kontsumo eta komunikazio aukeren baitan sortzen duen norbanako indibidualizatua erakartzeko, euskara komunikabidetzat hartu eta euskara kontsumitzea gustatu egin behar zaio, gozamina sortu behar dio.

Fermin Etxegoienek bere *Neurona eta Zeurona*¹⁵ liburuan honi hizkuntza estetika bezala ulertzea deitzen dio. Hizkuntza bat edo bestea aukeratzea kalera ateratzean jantziko dugun arroparekin parekatzen du, besteak beste. Gizartearengan eman nahi dugun irudiaren parte bat da hizkuntza, horregatik aukeratu behar dugu gustatzen zaiguna.

Etxegoienen liburuak, bere tesi berritzailea kaleratuz, Euskal Herrian aurrez ezagutzen ez ziren terminoetan kokatu du hizkuntzaren hautuaren gaia. Nire ustetan, erabiltzen dituen arrazonamenduak modernitate osteko gizartearen ezaugarrietara moldakorrak dira. "Artea da munduak ezagutu duen indibidualismo motarik handiena" esan zuen Oscar Wilde idazle irlandarrak. Kasu honetan, Etxegoienek hizkuntza baten aldeko hautua identitate kolektiboetan oinarritzen ez duen hiztunak, subjektu indibidual bezala bere erabakia irizpide estetikoaren arabera hartzen duela defendatzen du, esaldia berretsiz.

15 Etxegoien, 2004

Euskarara erakartzeko amu gisa honen bidez eskura litekeen gozamenaren mezua euskararen aldeko diskurtsuan nabarmentzeko beharra ikusten du Paula Kasaresek ere, bere hitzetan. Hizkuntzak ematen duen komunikaziorako aukerarekin eta harremanen bidez sentimenduen esparruan eragitearekin lotzen du gehiago:

"Baina ez da konpromisoa, komunikazioa baizik komunitatea komunitate egiten duena. Bertze modu bateaz erranda, komunitatea komunitate izateko komunikazioa behar du. Komunikazioa, komunikatu nahia, komunikatzeko gogoia, komunikazioaren nolabaiteko hitzarmena. Izan ere, horiek dira hiztuna gainontzeko hiztunei lotzeko bertze bide batzuk: emozionalak, zentzumenezkoak (sentsorialak), gorputz-bidezkoak (erosotasun eta ongizatearekin harremana dutenak), estetikoak, denak hizkuntza esperientzia konpartituak eta konplizitateak garatzekoak."
(Kasares,2007)

Badira, euskararen inguruan ildo hau bera jarraitzearen beharra aipatzen duten iritzi gehiago ere, Joxerra Garzia¹⁶ eta Iñigo Fernandez Ostolazarenak¹⁷ kasu. Helburua hiztunak erakartzea bada, zerbait eskaini behar zaiela defendatzen dute; zerbait gustagarria, gozagarria.

16 Garzia, 2007

17 Fernandez, 2006

5- ONDORIOAK

- Euskarak egoera oso ezberdinak bizi ditu. Lurraldearen arabera, adin taldearen arabera eta erabilera esparruaren arabera erabilera maila denetarikoak topa litezke Euskal Herrian. Ezagutza, motibazioa eta erabilerarako bestelako baldintzetan ere (hizkuntz harreman sarea eta hizkuntz arauak) aniztasuna da nagusi.
- Erabilera eta erabilerarako baldintzen adierazleen bilakaera positiboa da ia kasu guztietan (Ipar EHn ez). Ezagutzaren hazkunde erritmoa erabilerarenaren gainetik dago.
- Baldintza hauetan, ez da posible Euskal Herrian dauden hizkuntz egoera guztietan eraginkorra izango den sobera egituraturako diskurtsoa sortzea.
- Euskararen gizarte mugimenduaren berpizkundetik gaurdaino erabili den euskararen aldeko diskurtsoaren mezu nagusiak ondorengoak izan dira:
 - Egoeraren larritasuna
 - Hitzun guztien konpromisoaren beharra
 - Garapenerako oztopo nagusia: erabiltzen ez duten euskaldunak edo ikasten ez duten erdaldunak.
 - Euskararen Euskal Herriko berezko izaera
 - Ondare kultural bezala duen balioa
- XX.mende bukaera eta XXI.aren hasiera bitartean emandako gizarte eredu aldaketaren ezaugarri nagusiak hauek dira:
 - Mundu mailako harremanen areagotzea
 - Merkatuaren hedapena
 - Indibidualizazio prozesua
- Euskarak diskurtso berri baten beharra du, orain artekoa gizarte baldintza berrietara egokitu eta eraginkorragoa bihurtzeko. Inoiz baino baldintza hobek daude igorri nahi diren mezuen gaineko hausnarketa egin eta diskurtsoa berritzeko.
- Euskararen aldeko diskurtsoa eraginkorragoa izateko hiru proposamen egiten dira:
 - Euskararen irudia iraganarekin lotzea ekidin eta etorkizunarekin lotzea

bilatzea. Etorkizun hurbilean euskaraz bizitzea orokortu egingo denaren sinestea zabaltzea.

- Euskarak ondare kulturala den aldetik duen balioari garrantzi emateari utzi eta praktikan onurak dakartzan tresna izaera azpimarratzea.
- Euskarara erakarri nahi direnei (konpromisoa) eskatzeari utzi eta gozamena eskaintzea (estetik, bizipenak,...)

EUSKARAREN ALDEKO DISKURTSOA (XX.mendea)(Modernitatea)	DISKURTSO BERRITUA (XXI. Mendea) (Postmodernitatea)
IRAGANETIK ETORKIZUNERA	
Orain dela gutxi arte denek hitz egiten zuten hizkuntza da.	Hemendik lasterrera denek hitz egingo duten hizkuntza da.
ONDARETIK TRESNARA	
Euskara erabiliaz milaka urteko hizkuntza bizirik mantentzen laguntzen dugu.	Euskara erabiliaz gehiago saltzen duzu, gehiago ligatzen duzu, munduaren aurrean bereizi egiten zara,...
KONPROMISOTIK GOZAMENERA	
Euskararen alde bazaude euskaraz hitz egin behar duzu, ekimenetan parte hartu behar duzu, euskaraz kontsumitu behar duzu,...	Jende honekin, liburu hauekin, telebista hauekin, webgune hauekin, giro honekin, bertsolaritzarekin,... gozatu nahi baduzu zatoz euskarara

6- BIBLIOGRAFIA

- ARRUTI, Iñaki (2007) *3.5- Euskalgintzaren nondik norakoak*. HIZNET graduondoko ikastaroa.
 - AZTIKER eta HEIS (2007) *Euskal herria gaur. Datuak eta iritziak*. Iruñea. HEIS
 - BAUMAN, Zigmunt (1999) *Modernidad líquida*. Buenos Aires. Fondo de cultura económica
 - BAUMAN, Zigmunt (1999) *La globalización. Consecuencias humanas* México, DF Fondo de cultura económica
 - BAXOK, E., ETXEGOIN, P. Eta beste (2006) *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran*. Donostia. Eusko Ikaskuntza
 - BECK, Ulrich (1986) *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Barcelona. Paidós
 - BELTRÁN, Miguel (2003) *La realidad social*. 2. argitalpena. Madril. Tecnos
 - ETXEGOIEN, Fermin (2004) *Neurona eta zeurona*. Iruñea. Pamiela
 - Euskararen aholku batzordea (2004) *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua
 - Hainbat egile (2006) *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua
 - LARRAÑAGA, Nekane. (1995) *Euskal gaztetxoek euskararekiko jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Tesi doktoralak, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
 - MARTINEZ DE LUNA, I. Eta BERRIO-OTXOA, K. (zuz) (2000) *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Iñaki Martnez. De Luna. Gasteiz
 - MERTON, R. K (1979) *Teoría y estructura sociales*. México, DF. Fondo de cultura económica
 - ROYO, Jesus (1991) *Una llengua és un mercat*. 2. argitalpena. Barcelona Edicions 62
 - TOURAINE, Alain (2006) *Un nuevo paradigma (para comprender el mundo hoy)*. Barcelona. Paidós
-
- AGOTE, Imanol (1995) "Euskararen aldeko mugimendu soziala." In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 16. zk
 - ALTUNA, Olatz (2007) "Euskal Herriko kale erabileraren neurketa. Ikerketaren nondik norakoa".

- In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 64. zk
- AMONARRIZ, Kike (1994) "Egunen gurpilean. Soziolinguistika".
In: Jakin aldizkaria, 134. zk
 - AREXOLALEIBA, Julen (2004) "Europar eta munduan aniztasuna: etorkizuna = etorkintasuna?!"
In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 52. zk
 - ELUSTONDO, Miel Anjel (2007) "Hizkuntza mina, hiztunaren gaitza"
In: ARGIA 2092.zk
 - ETXEBARRIA, Aitor (2005) "Euskara guztiona... baina nola?"
In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 55. zk
 - IRIZAR, Mikel (2008) "Hizkuntzak enpresaren kulturean"
In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 65. zk
 - ISASI, Xabier (2007) "Euskararen erabileran kale"
In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 64. zk
 - JOHNSON, Keith (2006) "Basque Inquisition: How Do You Say Shepherd in Euskera?"
In: Wall Street Journal, (06/11/07)
 - JUARISTI, Patxi. "Nola sortu zerbait berria, baina zerbait gurea."
In: Hainbat egile (2008) *Atzorik etzira*. Mendebalde
 - MARTINEZ DE LUNA, Iñaki. (1996) "Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean"
In: BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 18.zk
-
- erabili.com (2008) "Euskarazko ikastereduak gora Hego eta Ipar Euskal Herrian"
http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1213683354
 - FERNANDEZ, Iñigo (2006) "Euskara nola saldu"
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1138379396
 - FERRERAS, Itxaso (2008) Kontseilua: "Euskararen normalizazioaren erritmoa onartezina da"
http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1216103592
 - GARZIA, Joxerra (2007) "Euskararen eskale eta jarrera negartia egitetik nahikoa dugu" In: Berria (2007/9/20)
http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=agenda&data=2007-09-20&orria=034&kont=559
 - KASARES, Paula (2007) "Norbanakoaren jarreratik talde jarrerara"
http://www.topaquea.org/index.php?option=com_docman&task=doc_download&qid=8&Itemid=203